2021IOSB0009

Ordizian, **2021eko uztailaren 22an UDAL OSOKO BILKURAK** ohiko deialdian bilera egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

*En Ordizia siendo el día **22 de julio de 2021** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el **AYUNTAMIENTO PLENO EN** Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**LEHENDAKARIA:**

Adur Ezenarro Agirre jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garciandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Ainhoa Jimenez Goñi | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jesus M.Lariz Orbezabal | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Itsaso Muñoz Rodriguez | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Lander Mujika Onandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ-PNV |
| Arantxa Fernandez Alvaredo | EAJ-PNV |
| Jose Miguel Santamaría Ezeiza | EAJ-PNV |
| Joseba Aranburu Ganzarain | EAJ-PNV |
| Xabier Crespo Ibarrolaburu | EAJ-PNV |
| Agurtzane Antoñana Arizmendi | EAJ-PNV |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Juan Ignacio Alonso Arratibel | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

| | |
|---|---|
| Arantxa Arocena Gomez | EAJ-PNV |

**IDAZKARIA:**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

**KONTUHARTZAILEA:**

Aloña Landa Piedrafita

**BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK:**

**AZTERTUTAKO GAIAK:**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

**1.** 2021eko ekainaren 24an egindako osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

*1.- Aprobación del Acta del Pleno celebrada el 24 de junio de 2021.*

**2**.- Ordiziako Udalaren 2021-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, hasierako izaeraz onartzea. (2021IPOA0002)

*2.- Aprobación inicial del Plan Estratégico de Subvenciones 2021/2023 del Ayuntamiento de Ordizia. (2021IPOA0002)*

**3.-** "22 San Joan" HIE hirigintza interbentzio eremuan dagoen a.20.3 lursail eraikigarria besterentzeko erabakia hartzea eta hau lehiaketa bidez eta prozedura irekiz izapidetuko duen administrazio klausula zehatzen agiria eta klausula teknikoen plegua onartzea. (2021SENA0001)

*3.- Aprobación de la enajenación de la parcela edificable a.20.3 ubicada en el área de intervención urbanística A.I.U. "22 San Juan" y aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas particulares y técnicas que han de regir la enajenación mediante concurso y procedimiento abierto. (2021SENA0001)*

**4.-** Ekaineko Alkatetzako dekretuen berri ematea.

*4.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes al mes de junio.*

**5.-** Kontu-hartzaileak ekaineko Kontratuei dagokien ingeren berri ematea.*(2021KERR0004)*

*5.- Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de junio.(2021KERR0004)*

**6.-** Galde-erreguak.

**.**-Idazkariak egindako balorazioari buruzko eztabaida.

*6.- Ruegos y preguntas.*

*.- Debate sobre la valoración realizada por la Secretaria.*

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

.- Langile zerrendaren aldaketa.

.- Plantilla organikoaren aldaketa.

*.- Modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.*

*.- Modificación de la Plantilla Orgánica.*

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 18:00etan.**

**AMAIERA: 19:02an.**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Gai-zerrendako puntuak aztertzen hasi aurretik, Idazkariak adierazi du urgentziaz sartu beharreko gai bat dagoela eta jarraian, Alkateak hurrengoa azaldu du:

Gaur lehenago balorazio batzordea izan dugu izan ere AOT lanak egiten dituen langileak badoala esan digu, eta egoera horren aurrean, Udal gisa eragiteko aukerarik gabe gelditzen ginen, izan ere, egiturazko funtzioak izaki ezin da aldi baterako programa berri bat planteatu. Batik bat kontratazioari zegozkion lanak egiten zituen.

Aurretiaz ere, giza baliabideen postua sortzeko lanketan, beste AOT postu baten sorrera planteatzen zen, azken hau, ondarean eta kontratazioan zentratzeko.

Era berean, astelehenan jaso genuen Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politika sailaren txostena, lanpostuei atxiki beharreko hitzkuntza-eskakizunen ingurukoa.

Beraz, gaur bertan onartu da balorazioa. Honek eta aurrez onartutakoek aurrekontuan ez dute eraginik izan ere, aurreikusita zeuden eta nahiz eta azken hau ez aurreikusita egon, jada aldi baterako programa gauzatzen ari zen.

Jarraian beraz, urgentziazko izaera bozkatu da.

*Antes de entrar en el examen de los puntos del orden del día, la Sra. Secretaria señala que existe un asunto a incluir por urgencia y a continuación el Sr. Alcalde expone lo siguiente:*

*Hoy hemos tenido comisión de valoración ya que la persona que realiza las tareas de TAG nos ha comunicado que cesa en el puesto, y ante esta situación nos quedamos sin la posibilidad de gestión como Ayuntamiento, ya que al ser funciones estructurales no se puede plantear un nuevo programa temporal. Realizaba labores principalmente de contratación.*

*Con anterioridad, se planteaba la creación de un puesto de RRHH y otro de TAG para centrarse en patrimonio y la contratación.*

*Asimismo, el lunes recibimos el informe del Departamento de Política Lingüística del Gobierno Vasco en relación a los perfiles lingüísticos a asignar a los puestos de trabajo.*

*Por tanto, hoy mismo se ha aprobado la valoración. Tanto éste puesto como los aprobados anteriormente no tienen incidencia en el presupuesto, ya que estaban previstos y aunque éste último no lo estaba, estaba ejecutando un programa temporal.*

*A continuación se procede a votar el carácter de urgencia.*

**Urgentziazko izaeraren bozketa:**

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz urgentziazko izaera onartu da.**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**1.- 2021eko ekainaren 24ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2021eko ekainaren 24ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, inork ez du hitz egin, beraz, jarraian bozketari ekin zaio.

***1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 24 de junio de 2021***

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 24 de junio de 2021***

*Debate*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: ninguna.*

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Ordiziako Udalaren 2021-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, hasierako izaeraz onartzea.**

Proposamena

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8. artikuluak "Oinarri Orokorrak" honako hau dio: "administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantziazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea."

Udal honek Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren proposamen bat egin du zehaztutako legeak ezarritako printzipioetara egokitzeko.

Plan Estrategikoa hasierako izaeraz onartzea osoko bilkurari dagokio eta erakusketa publikoan

***2.- Aprobación inicial del Plan Estratégico de Subvenciones 2021/2023 del Ayuntamiento de Ordizia.***

*Propuesta*

*La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones establece en su artículo 8 "Principios generales" que los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un Plan Estratégico de Subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.*

*Este ayuntamiento ha procedido a la elaboración de una propuesta de Plan Estratégico de Subvenciones para adecuarse a los principios establecidos por la mencionada ley.*

*Corresponde al Pleno la aprobación inicial de dicho Plan Estratégico, sometiéndose a exposición pública durante el plazo de 30 días en el B.O.G. así como en*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

egongo da GAOn 30 eguneko epean eta Udalaren webgunean eta iragarki-oholean.

2021eko uztailaren 19ko Antolaketaren Informazio Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

**AKORDIO PROPOSAMENA**

1.- Hasierako izaeraz onartzea Ordiziako Udalaren 2021-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eransten den testuaren eta eranskinen arabera.

2.- Erakusketa publikoan ipintzea 30 eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Akordio hau behin betikotzat hartzea inongo alegaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Azaldu du Plan Estrategikoa berritu beharra zegoela. Sail guztiek egin dute dirulaguntzen inguruko lanketa.

Informazio Batzordean aztertu zen proposamena eta hor Iñaki Dubreuilek zuzenketa batzuk egin zituen, izan ere, akats batzuk zeuden. Eta beraz, legez beharrezkoa den Plan Estrategikoa hasierako izaeraz onartzeko ekartzen da.

Dubreuil jauna:

3.6 puntuan agertzen diren laguntzei dagokienez, OHZk finantzatzen dituenak al dira? Nik zenbateko hori igotzea planteatzen dut, zenbateko hori urria iruditzen baitzait.

Alkate jauna

Urtero ez da berdina izaten, izan ere, oraindik aurten ez da bukatu diru-bilketa hori. Erreklamazio eta alegazio asko izaten dira. Aurtengo ekitaldia oraindik itxi gabe dago eta hori horri lotuta joaten da.

Sukia andrea

Metagarriak dira urte batetik bestera. Hain zuzen ere, OHZren plusaren % 50ari dagozkio. Ea

*la página Web y tablón de anuncios del Ayuntamiento.*

*Con el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Organización de fecha 19 de julio de 2021, se propone la adopción del siguiente*

***PROYECTO DE ACUERDO***

*1.- Aprobar inicialmente el Plan Estratégico de Subvenciones 2021/2023 del Ayuntamiento de Ordizia conforme al texto y anexos adjuntos.*

*2.- Someter a exposición pública durante el plazo de 30 días para la formulación de alegaciones.*

*3.- Entender elevado a definitivo el presente acuerdo, caso de no formularse alegación alguna.*

*Debate*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

*Sr. Alcalde:*

*Explica que había que renovar el Plan Estratégico. Se ha trabajado sobre las subvenciones desde todos los departamentos*

*La propuesta fue analizada en la Comisión Informativa, donde Iñaki Dubreuil hizo algunas correcciones, ya que había algunos errores. Y, por tanto, se aporta para su aprobación inicial el Plan Estratégico legalmente necesario.*

*Sr.Dubreuil*

*Respecto a las ayudas que aparecen en el punto 3.6, ¿son las que se dan financiadas por el IBI?, yo lo que planteo es elevar esa cantidad, pues esa cantidad me parece escasa.*

*Sr. Alcalde*

*Cada año no es lo mismo, ya que aún no se ha finalizado la recaudación este año. Hay muchas reclamaciones y alegaciones. El ejercicio de este año está aún sin cerrar y esto va unido.*

*Sra.Sukia*

*Son acumulativas de un año para otro. Efectivamente corresponden al 50% del plus del IBI. A ver si para*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

irailerako ordenantza behar bezala onar daitekeen.

Ordenantza finalista da zentzu horretan.

*septiembre se puede aprobar ya la ordenanza debidamente.*

*La ordenanza es finalista en ese sentido.*

Alkate jauna

Azkenean kontuhartzaileak aztertu zuen eta beste epigrafe batean jasotzen da errekargutik jasotzen dena. Modu honetan, argi dago kontzeptu horrengatik jasotzen dena.

*Sr. Alcalde*

*Finalmente fue analizado por la interventora y se recoge en otro epígrafe lo ingresado por el recargo. De esta manera queda claro lo que se percibe por este concepto.*

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- "22 San Joan" HIE hirigintzako interbentzio eremuan dagoen a.20.3 lusail eraikigarria besterentzeko erabakia hartzea eta hau lehiaketa bidez eta prozedura irekiz izapidetuko duen administrazio klausula zehatzen agiria eta klausula teknikoen plegua onartzea.**

***3.- Aprobación de la enajenación de la parcela edificable a.20.3 ubicada en el área de intervención urbanística A.I.U. "22 San Juan" y aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas particulares y técnicas que han de regir la enajenación mediante concurso y procedimiento abierto.***

Proposamena

2021eko uztailaren 3ko data duen Alkatetzaren Erabakiaren berri ematen da, non "22 San Joan" HIE Hirigintza Interbentzio Eremuan dagoen a.20.3 lursail eraikigarria besterentzeko espedienteari hasiera emateko erabakia hartzen den.

Udalak besterentzea aurrera eramateko herri intereseko arrazoiak ditu. Hori dela eta, egoki irizten da udal jabetzakoa den "22 San Joan" HIE Hirigintzako Interbentzio Eremuan dagoen a.20.3 lursail eraikigarria besterentzea.

Lursaila besterentzetik datozen diru-sarrerek Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 5. artikuluan aipatzen den destino-muga izango dute, eta ezin izango dira, inola ere, gastu arruntetara bideratu.

*Propuesta*

*Se da cuenta de la Providencia de Alcaldía de fecha 3 de julio de 2021, por el que se acuerda el inicio del expediente de enajenación de la parcela edificable a.20.3 ubicada en el área de intervención urbanística A.I.U "22 San Juan".*

*El Ayuntamiento está interesado en la enajenación de la citada parcela por motivos de interés social. Por ello, se estima procedente la enajenación de la parcela edificable de titularidad municipal A.20.3, ubicada en el ámbito de intervención urbanística A.I.U. "22 San Juan".*

*Los ingresos procedentes de la enajenación de la parcela tendrán la limitación de destino a que se refiere el artículo 5 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, no pudiendo ser destinados en ningún caso a gastos corrientes.*

Besterentzea lehiaketa bidezko lizitazio prozedura ireki bidez tramitatuko da.

*La enajenación se tramitara mediante concurso y procedimiento abierto.*

Horregatik, aipatutako erabakia ikusita, honako txosten hauek igorri dira:

*Por todo ello, a la vista del citado Acuerdo, Se remiten los siguientes informes:*

a) 2021eko uztailaren 1eko data duen udal Arkitektoaren txostena, besterenduko den ondasunaren balorazio teknikoari edo balio justuari buruzkoa.

*a) Informe del Arquitecto Municipal, fechado el 1 de julio de 2021, sobre la valoración técnica o justiprecio del bien a enajenar.*

b) 2021eko uztailaren 5eko data duen Idazkaritzako AOTaren txostena, zeinak Udal Idazkariaren adostasun ziurtagiria daukan, besterentzeari ezarri beharreko legeriari buruzkoa eta baita jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa ere.

*b) Informe de la TAG de Secretaría, de 5 de julio de 2021, sobre la legislación aplicable a la enajenación y el procedimiento a seguir, con la respectiva nota de conformidad de la Secretaría municipal.*

c) 2021eko uztailaren 2ko data duen Kontu-hartzailearen txostena, aurrekontuaren ohiko baliabideei buruzkoa.

*c) Informe del Interventor de fecha 2 de julio de 2021, sobre los recursos ordinarios del presupuesto.*

Halaber, besterentze espedientean dokumentu hauek gehitu dira:

*Se ha aportado asimismo al expediente de enajenación:*

d) Ondasuna tokiko erakundearen ondare ondasun gisa behar bezala inskribatuta dagoela ziurtatzen duen Jabetza Erregistroaren informazio-ohar soila.

*d) Nota simple informativa del Registro de la Propiedad que acredite que el bien está debidamente inscrito como bien patrimonial de la entidad local.*

e) Idazkariaren ziurtagiria ondasunaren inskipzioarena.

*e) Certificación de la Secretaría de la inscripción del bien.*

f) Ondasunaren balorazio teknikoa.

*f) Valoración técnica del bien.*

Idazkaritza Sailean lur zatiaren besterentzea lehiaketa eta prozedura irekiz izapidetzeko Administrazio baldintza ekonomikoen agiria landu da. Hirigintzan baldintza teknikoen agiria landu da bestetik.

*Se ha elaborado, en el área de Secretaría, el Pliego de Condiciones Económico Administrativas que tiene por objeto regular la adjudicación de la enajenación por concurso y procedimiento abierto de la citada parcela. Asimismo se ha elaborado en el área de Urbanismo el Pliego de Condiciones Técnicas.*

Hori guztia ikusita, besterentze-espedientea onartu nahi da. Era berean, lizitazio prozedura izapidetuko duen administrazio baldintza ekonomikoen agiria eta baldintza teknikoen agiria ere onartu nahi dira.

*A la vista de todo ello, se pretende proceder a la aprobación del expediente de enajenación, así como a la aprobación del pliego de condiciones económico-administrativas y técnicas para la licitación por concurso por el órgano competente.*

Eskumenari dagokionez, adierazi behar da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 9. zenbakia toki-erakundeetan alkateari edo toki-erakundeko presidenteari dagokiola kontratu pribatuak egiteko eskumena, bai eta ondasun higiezinak eta ondare-legeriaren mendeko eskubideak eskuratzekoa ere, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuak aurrekontuko

*En cuanto a la competencia hay que señalar que la Disposición Adicional Segunda, apartado 9 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público, en las entidades locales corresponde al Alcalde o Presidente de la entidad local, la competencia para la celebración de contratos privados así como la adquisición de bienes inmuebles y derechos sujetos a la legislación patrimonial cuando el presupuesto base de licitación no supere el 10 por ciento de los*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

baliabide arrunten ehuneko 10 gainditzen ez duenean, eta 3.000.000 euroko zenbatekoa, bai eta ondarea besterentzea ere, baldin eta haren balioak ez badu gainditzen ehunekoa eta zenbatekoa.

*recursos ordinarios del presupuesto ni el importe de 3.000.000 de euros así como la enajenación del patrimonio cuando su valor no supere el porcentaje ni la cuantía indicados.*

Udalbatzarrari dagokio onespen hori emateko eskumena, ondasuna 1.501.610,60 eurotan baloratuta dagoelako.

*Corresponde al Pleno la competencia para dicha aprobación porque el bien está valorado en 1.501.610,60 euros.*

Besterentze-prezioak ez du aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 25 gainditzen. Ondorioz, besterentze horrek ez du Foru Aldundiaren nahitaezko baimenik behar, eta nahikoa da besterentze horren berri ematearekin.

*El precio de enajenación no supera el 25 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto. En consecuencia, dicha enajenación no necesita de la autorización preceptiva de la Diputación Foral y basta con comunicar a posteriori dicha enajenación.*

**AKORDIO PROIEKTUA**

***PROYECTO DE ACUERDO***

**LEHENA.-** “22 San Joan” HIE hirigintzako interbentzio eremuan dagoen a.20.3 lursail eraikigarria besterentzeko erabakia hartzea.

***PRIMERO.-*** *Aprobación de la enajenación de la parcela edificable a.20.3 ubicada en el área de intervención urbanística A.I.U. “22 San Juan”.*

**BIGARRENA.-** Besterentzea lehiaketa bidez eta prozedura irekiz izapidetuko duen administrazio klausula zehatzen agiria eta klausula teknikoen agiria onartzea.

***SEGUNDO.-*** *Aprobación del pliego de cláusulas administrativas particulares y pliego de cláusulas técnicas que han de regir la enajenación mediante concurso y procedimiento abierto.*

**HIRUGARRENA.-** Espedientea jendaurrean jartzea, hogei egunez, udaletxeko iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko besterentzea erabaki dela ulertuko da.

***TERCERO.-*** *Exponer al público el expediente por un plazo de veinte días en el tablón de Edictos del Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.. Si no se presentan reclamaciones, se entenderá acordada la enajenación definitivamente.*

**LAUGARRENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundira ondasunaren besterentze-espedientea bidaltzea, jakinaren gainean egon daitezen.

***CUARTO.-*** *Remitir a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su conocimiento el expediente de enajenación del bien.*

**BOSGARRENA.-** Lizitazio prozesua abiaraztea Kontratazio perfilean eta GAOn argitaratu ondoren.

***QUINTO.-*** *Puesta en marcha del proceso de licitación tras su publicación en el Perfil de Contratante y en el BOG.*

**SEIGARRENA.-** Besterenduko den ondasuna udal-lurzoru ondarea dela kontuan hartuta, besterentze horretatik lortuko diren baliabideak legeriak halako ondareetarako ezartzen dituen xedeetarako erabiliko dira.

***SEXTO.-*** *Teniendo en cuenta que el bien a enajenar es patrimonio municipal de suelo, los recursos que se obtengan de dicha enajenación se destinarán a los fines que la legislación establece para tales bienes.*

**ZAZPIGARRENA.-** Alkateari baimena ematea salerosketa-kontratua formalizatzeko eta eskritura publiko bihurtzeko.

***SÉPTIMO.-*** *Autorizar al Alcalde para que proceda a la formalización del contrato de compraventa y su elevación a escritura pública.*

<u>Eztabaida</u>

*<u>Debate</u>*

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

Alkate jauna

Gai hau aspalditik dator. Tokiko Gobernu Batzordean ere aztertu genuen.

Udalak San Joan inguruan zenbait lursail ditu. Bukatzen ari den etxadiaren goiko partean gelditzen den zati bat da eta zentzu horretan, azkenean zenbait gai argitu behar izan dira. Batetik, urbanizazio kargen gaia, izan ere, Ordiziako Udala mailegu bidez jartzen joan den diru hori guztia jada Ordizia Lantzenen adostu zen zein kontzeptugatik egin zen eta jada Ordiziako Udalak ez dauka zorrik.

Beraz, partzela saltzeko beharrezko prozedura hasi zen. Udal arkitektoak egin zuen bere balorazioa ikusita ondoko partzeletan zein salmenta egin diren.

Kopuruagatik, Osoko Bilkurara ekarri da onartzeko.

*Sr. Alcalde*

*Este tema viene desde hace mucho tiempo. También lo estudiamos en la Junta de Gobierno Local.*

*El Ayuntamiento tiene terrenos en la zona de San Joan. Se trata de una parte que queda en la parte superior de la manzana que termina, y en este sentido, al final se han tenido que aclarar algunas cuestiones. Por un lado, el tema de las cargas de urbanización, ya que el Ayuntamiento de Ordizia ya había acordado en Ordizia Lantzen el concepto por el que se hizo, así ya el Ayuntamiento de Ordizia no tiene deudas.*

*Por lo tanto, se inició el procedimiento necesario para proceder a la venta de la parcela. El arquitecto municipal realizó una valoración de las ventas realizadas en las parcelas colindantes.*

*Por su número, se trae al Pleno para su aprobación.*

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Ekaineko Alkatetzako dekretuen berri ematea.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: inork ez du rkarpenik egin.

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**

***4.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes al mes de junio.***

*Debate*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: no ha habido intervenciones.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**5.- Kontu-hartzaileak ekaineko kontratuei dagokien ingeren berri ematea**

**AURREKARIAK:**

Honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik kontu-hartzaileari:

***5.- Reparos del Interventos sobre contratación correspondiente al mes de junio***

***ANTECEDENTES:***

*El Departamento de Secretaría da cuenta a la interventora de los siguientes contratos que están fuera de plazo:*

| Enpresaren izena/ Nombre de la empresa | Kontratuaren xedea / Objeto del contrato | Kontratua/ Contrato | Bukaera data/ Fecha de finalización | Luzapenak/ Prórrogas | 2020an gastua/ Gasto en 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gesmunpal | Diru.bilketa exekutiboa / Recaudación ejecutiva | 2003/11/03 | 2007/11/03 | Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato) | 28.697,99€ |
| Juan M. Garmendia Amundarain | Kultur etxearen atezaina / Conserje cultura | 1986/04/15 | Mugagabea / Indefinido | Urteko luzapena / Prórroga anual | 44.897,21€ |
| Landarri S.L. | Hilerriaren zerbitzua / Servicio cementerio | 2005/03/10 | 10 urte / 10 años 2015/03/01 | Luzapen dekretua esleipen berri bat arte /Decreto de prrórroga hast nuevo contrato. | 34.791,00€ |
| Erro Koop. Elkartea. Leire Andia | D´Elikatuz zentroaren kudeaketa / Gestión Delikatuz | 2012/07/24 | Gehienez 4 urte /max. 4 años 2016/07/24 | Kontraturik gabe / Sin conrato | 102.348,57€ |
| LAIA S.COOPl. | Agenda 21 | 2013/04/01 | 2015/04/01 | Kontraturik gabe / Sin contrato | 17.914,08€ |
| Iberdrola | Energia elktrikoa / Energía eléctrica | | 2020/04/30 | Luzatua esleipena atera arte / Prorrogado hasta adjucicación | 223.624,83€ |
| Euskaltel | Zentralita eta mugikorrak / Centralita y móviles | 2014/05/20 | 2018/05/20 | Luzatua esleipena atera arte /Prorrogado hasta adjudicación | 40.586,89€ |
| Biok Zerbitzuak | Pertsonal laborala kontratatzeko laguntza teknikoa / Asesoría en contratación laboral | Kontraturik gabe | | | 13.760,83€ |
| 2008 Makelsako Gipuzkoa SL | Impresoren mantenu kontratua / Mantenimiento de inpresoras | Kontraturik gabe / Sin contrato | | | 9.485,57€ |

**A )Aplikagarria zaizkion arauak:**

**a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.**

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”

Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira

***A) Normas aplicables:***

***a.1) Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público***

*“Artículo 29. Plazo de duración de los contratos y ejecución de los contratos.”*

*Sin perjuicio de las normas especiales aplicables a determinados contratos, la duración de los contratos del sector público deberá establecerse teniendo en*

prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

*cuenta la naturaleza de las prestaciones, las características de su financiación y la necesidad de someter periódicamente a concurrencia la real.*

Bigarren xedapen gehigarria. Toki erakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

*Disposición adicional segunda. Normas específicas de contratación en las Entidades Locales.*

Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

*Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.*

"35. artikulua. *Kontratuaren gutxieneko edukia":*

*"Artículo 35. Contenido mínimo del contrato":*

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

*1. Salvo que ya se encuentren recogidas en los pliegos, los contratos que celebren los entes, organismos y entidades del sector público deben incluir, necesariamente, las siguientes menciones:*

*Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-krediturен edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.*

*El crédito presupuestario o el programa o rúbrica contable con cargo al que se abonará el precio, en su caso.*

**a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

***a.2) Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.***

" 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola."

*"Artículo 67. Control de legalidad".*

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebehar ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen araberakoa izan dadin.

*1.-La función interventora en su aspecto de control de legalidad tendrá por objeto fiscalizar todos los actos de las Entidades locales y sus Organismos Autónomos que den lugar al reconocimiento y liquidación de derechos y obligaciones o gastos de contenido económico, los ingresos y pagos que de aquéllos se deriven, y la recaudación, inversión y aplicación, en general, de los caudales públicos administrados, con el fin de que la gestión se ajuste a las disposiciones aplicables en cada caso.*

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebehar ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.
b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.
c) Ordainketaren kontu-hartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoen erabilpenerako amankomunatuei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Ingerak".

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

2.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

- Espedientean funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.

3.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

**a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

"213. artikulua. Barneko kontrola."

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek

*2.- El ejercicio de la expresada función comprenderá:*

*a) La intervención crítica o previa de todo acto, documento o expediente susceptible de producir derechos u obligaciones de contenido económico o movimiento de fondos de valores.*
*b) La intervención formal de la ordenación del pago.*
*c) La intervención material del pago. Salvo que por acuerdo del Pleno sea autorizada la realización de este control por muestreo, la firma del Interventor se añadirá a las mancomunadas de disposición de fondos previstas en el artículo 57 de esta Norma Foral.*

*Artículo "70. Reparos".*

*1.- Establece la obligación del Interventor, en caso de mostrarse en desacuerdo con el fondo o con la forma de los actos, documentos o expedientes examinados, de formular sus reparos por escrito antes de la adopción del acuerdo o resolución.*

*2.-Si el reparo afecta a la disposición de gastos, reconocimiento de obligaciones u ordenación de pagos, se suspenderá la tramitación del expediente hasta que aquél sea solventado en los siguientes casos:*

- *En los casos de omisión en el expediente de requisitos o trámites esenciales.*

*3.- Cuando el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al Presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso.*

***a.3) Ley 27/2013,de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local.***

*En el segundo artículo se modifica el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, quedando del siguiente modo el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo:*

*Artículo "213. Control interno.".*

*Los órganos interventores de las Entidades Locales remitirán con carácter anual a la Intervención*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

"<u>218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak</u>."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketen aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.».

Irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira maiatzean zehar:

*General de la Administración del Estado un informe resumen de los resultados de los citados controles desarrollados en cada ejercicio, en el plazo y con el contenido que se regulen en las normas indicadas en el párrafo anterior.»*

*<u>Artículo "218. Informes sobre resolución de discrepancias".</u>*

*1. El órgano interventor elevará informe al Pleno de todas las resoluciones adoptadas por el Presidente de la Entidad Local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.*

*Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.*

*El Presidente de la Corporación podrá presentar en el Pleno informe justificativo de su actuación.*

*2. Sin perjuicio de lo anterior, cuando existan discrepancias, el Presidente de la Entidad Local podrá elevar su resolución al órgano de control competente por razón de la materia de la Administración que tenga atribuida la tutela financiera.*

*3. El órgano interventor remitirá anualmente al Tribunal de Cuentas todas las resoluciones y acuerdos adoptados por el Presidente de la Entidad Local y por el Pleno de la Corporación contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. A la citada documentación deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la Corporación local.»*

*En el mes de junio han llegado las siguientes facturas que corresponden a contratos que están en situación irregular:*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

| ERREPARO FAKTURAK / FACTURAS REPARO | EKAINEAN JASOTAKO FAKTURAK/ FACTURAS RECIBIDAS EN MAYO Y JUNIO | | |
|---|---|---|---|
| **HORNITZAILEAK / PROVEEDOR** | **FAKTURA ZENBAK. NUM.FACTURA** | **FAKTURA DATA FECHA FACTURA** | **ZENBATEKOA IMPORTE** |
| LANDARRI S.L.U. | 21000371 | 2021/5/24 | 401,07 € |
| LANDARRI S.L.U. | 21000370 | 2021/5/24 | 401,07 € |
| LANDARRI S.L.U. | 21000432 | 2021/6/8 | 401,07 € |
| LANDARRI S.L.U. | 21000385 | 2021/5/28 | 80,08 € |
| ERRO KOOP. ELKARTEA | 008U.21 | 2021/6/1 | 7.718,21 € |
| ERRO KOOP. ELKARTEA | 005D.21 | 2021/6/1 | 120,00 € |
| LAIA, S.COOP. | 17 | 2021/6/3 | 1.492,84 € |
| 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA S.L. | 4103776 | 2021/5/21 | 600,06 € |
| 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA S.L. | 4104559 | 2021/5/27 | 317,73 € |

**ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Aipatu behar da, gainera, Iberdrolarekin eta Euskaltelekin ordainketak helbideratuak dituela Ordiziako Udalak.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez Alkateak hartutako ebazpen guztiekin batera eta puntu bereizi bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

***CONCLUSIONES:***

*a) Teniendo en cuenta que todos los contratos detallados en la lista están en situación irregular, deben actualizarse cuanto antes. Hay que señalar, además, que el Ayuntamiento de Ordizia tiene domiciliados pagos con Iberdrola y Euskaltel.*

*b) Se paralizará el trámite de pago de las facturas de los contratos detallados hasta que lo resuelva el Alcalde. La interventora enviará este informe al Pleno, con las resoluciones adoptadas por el alcalde en relación a los reparos señalados e incluirá un punto independiente en el orden del día del correspondiente Pleno.*

**2021/0725. DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak 2021ko ekainaren 17an egindako 04/2021 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak, administrazioek gardentasun-printzipioekin

funtzionatzeko duten betebeharrak espediente guztiak zorrotzago eramatera behartzen gaituzte eta, gainera, gai ugariri buruzko informazioa beste administrazio eta erakunde batzuei eman behar diegu.

- Zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin plangintza osatzen ari gara.

- Hala ere, eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako, zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

-Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

Irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira ekainean zehar:

| ***ERREPARO FAKTURAK / FACTURAS REPARO*** | ***EKAINEAN JASOTAKO FAKTURAK/ FACTURAS RECIBIDAS EN JUNIO*** | | |
|---|---|---|---|
| **HORNITZAILEAK / PROVEEDOR** | **FAKTURA ZENBAK./ NUM.FACTURA** | **FAKTURA DATA/ FECHA FACTURA** | **ZENBATEKOA / IMPORTE** |
| LANDARRI S.L.U. | 21000371 | 2021/5/24 | 401,07 € |
| LANDARRI S.L.U. | 21000370 | 2021/5/24 | 401,07 € |
| LANDARRI S.L.U. | 21000432 | 2021/6/8 | 401,07 € |
| LANDARRI S.L.U. | 21000385 | 2021/5/28 | 80,08 € |
| ERRO KOOP. ELKARTEA | 008U.21 | 2021/6/1 | 7.718,21 € |
| ERRO KOOP. ELKARTEA | 005D.21 | 2021/6/1 | 120,00 € |
| LAIA, S.COOP. | 17 | 2021/6/3 | 1.492,84 € |
| 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA S.L. | 4103776 | 2021/5/21 | 600,06 € |
| 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA S.L. | 4104559 | 2021/5/27 | 317,73 € |

-Taulako fakturekin batera helbideratuak dauden Euskalteleko eta Iberdrolako fakturak ordaintzeko agindua ematea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jaina:

Denbora asko daramagu ingeren gaiarekin, eta, beraz, gobernu-taldeari eskatzen diogu egutegi bat diseina dezala kontratu horiei konponbidea emateko.

2019ko maiatzean 8 ingera zeudela uste dut. Ez dakit hor denak dauden ala ez. Baina orain 9 ditugu. Aurrera egiteko eta buelta emateko helburua izan behar dugu.

*Debate*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

*Sr.Dubreuil:*

*Llevamos muchísimo tiempo con el tema de los reparos, por lo que instamos al equipo de gobierno que diseñe un calendario para dar solución a estos contratos.*

*En mayo de 2019 creo que había 8 reparos. No sé si ahí están todos o no. Pero ahora tenemos 9. Nos tenemos que plantear el objetivo de avanzar y darle una vuelta.*

Idazkari andrea

Denok jakitun zarete. Ez da 2019. urtetik datorren kontu bat soilik, askoz lehenagotik datorren kontu bat da.

Orain hasi gara lanketa batean eta noski hiru hilabetean ezin da dena konpondu baina lanean ari gara pausoak ematen eta aterako da. Eta hurrengo puntua ere nahiko lotuta dago.

Baina hori, kontuan hartzeko kontu hau mila bederatziehun eta laurogeitahirugarren urtetik gutxi gorabehera, pilatzen joan den gaia dela.

Bolinaga jauna

Nik esan nahiko nuke esan zenutela azkeneko Plenoan datak jartzen hasiko zinetela eta badakit zaila dela baina gutxienez pixkanaka-pixkanaka data batzuk jarriko bazenituzte ondo egongo zen.

Izan ere, datak jartzea ezinbesteko da.

Idazkari andrea

Irailerako egongo da baina gauza da hemen ateratzen diren ingera batzuk behin eta berriro agertzen jarraituko direla. Adibidez, Gesmunpal. Diru-bilketa zerbitzua ematen du. Horren konponbidea diruzainaren lanpostua sortzea da baina trantsizio horretan, guztia gauzatu arte, hor jarraituko du ingerak.

Gainera, zerrenda ez da soilik hau, gehiago ere badaude egoera irregularrean.

Bolinaga jauna

Bai baina nik esaten dut kentzen joateko. Eta beraz, datak jarrita bete egiten dira.

Alkate jauna

Denok ados gaude baina kentzen joate horretan ere ezin da plangintzarik gabe jardun eta adierazi zitzaizuen kontratazio plangintza jada hasita dagoela baina esan behar da nahiko nahasmen dagoela.

Gainera, Ainhoak esan bezala, hauek dira ordainketa momentu honetan ekarri dutenak baina gehiago ere badaude.

Beraz, plangintza horren barruan helburua da lehentasunak jartzea. Hori hasita dagoen lan bat da.

*Sra. Secretaria*

*Todos sóis conscientes. No es sólo una cuestión que viene desde el 2019, es una cuestión que viene de mucho antes.*

*Hemos empezado a trabajarlo, pero claro, en tres meses no se puede arreglar todo. Estamos dando pasos y saldrá. El siguiente punto también está bastante relacionado con este tema.*

*Insisto en que hay que tener en cuenta que esta cuestión se ha ido acumulando desde el año mil novecientos noveinta y tres aproximadamente.*

*Sr. Bolinaga*

*Me gustaría decir que comentásteis de poner fechas en el último Pleno y sé que es difícil pero estaría bien ir poniéndolas poco a poco.*

*Es imprescindible fechar.*

*Sra. Secretaria*

*Estará para septiembre, pero lo que pasa es que algunos de los reparos que salen aquí van a seguir apareciendo una y otra vez. Por ejemplo Gesmunpal. Presta el servicio de recaudación. La solución es crear un puesto de trabajo de tesorero, pero en esa transición, hasta que todo se materialice, el reparo seguirá ahí.*

*Además, el listado no es sólo este, hay más en situación irregular.*

*Sr. Bolinaga*

*Sí, pero yo digo que se vaya reduciendo. Por lo tanto, fijando fechas se va cumpliendo.*

*Sr. Alcalde*

*Todos estamos de acuerdo, pero en esa reducción tampoco se puede actuar sin planificación y la planificación de la contratación que se os indicó ya está iniciada, pero hay que decir que existe cierto desbarajuste.*

*Además, como decía Ainhoa, estas son las que se han traído para el pago en este momento, pero también hay más.*

*El objetivo, por tanto, dentro de esta planificación es establecer prioridades. Se ha iniciado ya ese trabajo.*

Premiazko gaia ere honi lotuta dago izan ere kontratazioaren ardura zuen pertsona badoa eta beraz, ordezko bat behar da.

*El tema de urgencia también está relacionado con esto, ya que la persona responsable de la contratación se va, por lo que se necesita una sustitución de la misma.*

Idazkari andrea

*Sra. Secretaria*

Lanean ari gara. Nolanahi ere nahasmen handia dago izan ere pertsona berri bat etortzen denean ez dago ezer argi, dena sistematizatu gabe dago eta horrek are gehiago zailtzen du lana.

Era berean, osoko bilkurako bilera asko ikusten egon naiz eta ingerak aspalditik etorri dira eta normalean osoko bilkuraren partetik ez dira hitz asko egon.

*Estamos trabajando. Sin embargo, existe un gran desorden porque cuando viene una nueva persona no hay nada claro, todo está sin sistematizar y esto dificulta aún más el trabajo.*

*Asimismo, he estado viendo muchas sesiones del pleno y se han venido presentando los reparos desde hace mucho tiempo y en general, no veo que hayaa habido muchas intervenciones al respecto.*

Santamaría jauna

*Sr. Santamaría*

Ingerak ez datoz hain aspalditik.

*Los reparos no vienen de hace tanto tiempo.*

Idazkari andrea

*Sra.Secretaria*

Bai, 2017tik.

*Sí, desde el 2017.*

Santamaría jauna

*Sr.Santamaría*

Aipatu duzunagatik badirudi aurreko legegintzaldian ez zela ezer egin. Ikusiko duzu kontratazio asko aurreko legegintzaldian eguneratu zirela.

*Por lo que has mencionado, parece que en la anterior legislatura no se hizo nada. Verás que muchas de las contrataciones se actualizaron en la anterior legislatura.*

Idazkari andrea

*Sra.Secretaria*

Garmendiarena ere bai?

*La de Garmendia también?*

